

EUSKARARAKO HIZTEGIA.
OINARRIZKOA

Hor duzu, euskaltzale *fin* hori, bozkarioz eskaintzen dizugun emaitza. **Euskararako Hiztegia** du izenburua eta **Oinarrizkoa** azpтитulua. Euskara hutsezkoa duzu, horrek esan nahi duen guztiarekin: euskara kultura bizitza osorako fresna dela sinesten bait dugu, hots, Europako kultura-atetik euskararen bidez sar gaitzkeela.

Euskal hitz jatorrak eta maileguak aurkituko dituzu bertan. Azken hauetatik, gure eritziz, beharrezkoenei soilik egin diegu leku. Irakaskuntzan, administrazioan, politikan, salerosketan eta lanbide ezberdinetan euskara etxekotzat hartuko bada, mailegu eta hitz tekniko batzu onartu behar ezinbestean.

Lehenengo ildo beretik gatozkizu, baina zenbait berrikuntza, gehikuntza eta, ustez behintzat, hobekuntza erantsiz.

Kontuz eta arretaz ihardun dugu lehenagotik dauden hiztegiak arakutzen eta geure orainarteko lanak zuzentzen eta orrazten. Beraz, hiztegi honetan, tamainuz txiki samarra izan arren, euskararen normalkuntza bidean, bai hitzen formei eta bai ortografiari dagokienez, eredu aski finkatuak eta fidagarriak aurkituko dituzula uste dugu.

Euskaldun iraun eta euskaraz bizi nahi duen Euskal Herriko jende fin eta leialari eskaintzen diogu bihotzez.

Aurreko hitzez aurkeztu genuen «Bostak bat» lantaldekook argitaratu berri genuen hiztegia. Aurrekoaren ildotik zetorren. Hain zuzen ere, *Euskararako Hiztegia* (1966) berriztatu eta osotzearen ondorio izan da oraingo hau. Aurkezpen honetan bada, lehenengo, burutu dugun lanaren helburuak eta erabilitako metodologia emango ditugu aditzera, jarraian, aurreko *Euskararako Hiztegiak* eta oraingo *Euskararako Hiztegia*. *Oinarrizkoak* beren artean dituzten aldeak jakineraztera joteko.

HELBURUAK:

a) Gure asmoa eguneroko bizitzan maiztasun edo erabilera handiena duen euskara biltzea izan da. Hau da, gaur, eguneroko bizitzan euskarak dituen beharriaz zuzeneko erantzuna, euskaraz ematea.

b) Definizio hiztegi mota ugari aurkitzen denez gero, gu erdi mailako definizioak (ez sakonegiak ez eta errezagiak) dituen hiztegia egiten saiatu gara.

c) Ahalegin handia egin dugu, era berean, ahalik eta hizkuntza standarrerena erabiltzen, gure lan hau, hainbatetan, euskara normalizatuaren ispilu gertatzen delarik.

METODOLOGIA

A) **Lehen urratsa:** hitzen zerrenda hautatzeko iturriak bilatu eta zerrenda egokia egitea. Hitzen sarrera-zerrenda egiterakoan, besterik beste, honako iturriok erabili genituen.

- * AEK-k argitaratutako hitz-zerrenda (2.000 hitz)
- * HABE-k argitaratutako hitz-zerrenda (3.000 hitz).
- * HITZ EGIN-en erabilitako hitz-zerrenda (5.500 hitz).
- * ZORTZI URTE ARTEKO IKASTOLA HIZTEGIA

(Euskaltzaindiaren oneritziaz argitaratua).

- * ESKOLAURREKO, LEHEN ZIKLOKO ETA ERDIKO ZIKLOKO EUSKARAREN PROGRAMAKUNTZAN datozen hitzak («B» eta «D» eredukoak).
- * HAUTA-LANETARAKO EUSKAL HIZTEGIAREN lehen prestaeratik 4.000 hitzen hautaketa.
- * DICCIONARIO BASICO ILUSTRADO (4.000 hitz) X. Mendigurenek euskaratua.
- * SINONIMOEN HIZTEGITIK, 3.500 hitzen hautaketa.
- * HIZTEGIA 2000tik hiru mila hitzen hautaketa.
- * UZEI-k ikastoletako 225 liburutan eginiko husketatik ateratako zerrenda. Eta UZEI-ren gainerako hiztegietatik: Administrazio, Legegintza, Finantza, Kirol eta abarretako hitz sorta).
- * BIZKAIKO ETA IPARRALDEKO ELEIZ LIBURU BATERATUETATIK ateratako zerrenda (2.000 hitz inguru).
- * DEFINIZIOAK EGITERAKOAN sartu beharrean izan ginen hitzak. Azkue-ren hiztegitik euskalki nagusietan hedadura handiko diren hitzen hautaketa.

B) **Bigarren urratsa:** Hiztegia egitea (*definizioak, adibideak, sinonimoak*). Zeregin horretan lagungarri izan genituen:

- Ibon Sarasolaren *Hauta-lanetarako Euskal Hiztegia* (A eta B liburukiak)
- *Batasunaren Kutxa*: lehen euskal hiztegi definizioduna (Xabier Kintana eta Gabriel Arestik egina).

- UZEI-k zenbait liburutan eskainitako definizioak.
- *Inguruko Erderetako hiztegiak* (euskaraz antzerako definizioak egiteko, ezin baita dena asmatu).

C) **Lana egiteko era:** Hasieran, bakarka taldekide guztiok proba batzu egin. Gero, taldean, guztion artean egindakoa aztertu eta definizio eredu batzu erabaki. Hurrengo, eginiko hitz-zerrenda, guztion artean, atalka bananduz, definitzeari hasiera eman.

Lan hori eginda gero, guztion artean bakoitzak bakarrean egina ikusi eta orraztu eta, azkenean, taldekide biren artean bateraketa eman. Imprimategiko probak zuzentzea guztion artean egin genuen.

Lan guztia, bakoitzaren eguneroko lanorduetatik aparte egina izan zen, talde lanerako hainbat lanunbat ere erabili behar izan genituela.

ZER ERANTSI DIOGUN ORAINGO HIZTEGIAN

a) Iturriei dagokienean: oraingo hiztegiak, aurrekoak baino 3.200 sarrera gehiago ditu. Nondik edo nola lortuak izan diren? Honela:

- Aurrekoan erabilitako iturrietan, hautaketa egiterakoan, kanpoan utzitako hitzak berriro jasoz.

- Aurreko hiztegiaren barruan sinonimo gisa agertu arren, sarrera gisa sartu gabe genituen hitzak definituz.

- Hamar urte arteko Eskola-liburuetan ageri diren hitzen artean eginiko hautaketa bidez.

- Azken bi urteotan argitaratutako hurrengo liburuok erabiliz:

a) J.M. Etxebarria eta J. Antonio Mugikak, Euskal Herrian zehar eginiko enkestaren ondoren, argitaratutako *Euskararen Oinarrizko Hiztegia* (1988).

b) Eusko Jaurlaritzak argitaratutako **Oinarrizko Hitzak - Euskarazko hitz erabilgarrienak** (1989).

c) Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzuak argitaratutako **Hitzak irudiz ikasiz** (1989) hiztegitik eginiko hautaketa.

b) **Barruko edukinari dagokionean:** Hauek dira hiztegi honetan agertzen diren barruko hobakuntzak:

- Aurreko hiztegia (Euskararako Hiztegia: adorez-2) goitik behera aztertu dugu behar zituen berrizketak eginez. Batez ere gramatika mailako kontzeptuak sakonkiago eskainiz.

- **Adibideak, sinonimoak eta adierak** ere hainbatetan ugaritu dira (oraingoan: 3.200 adibide, 1.800 sinonimo eta 1.400 adiera gehiago).

- Aurrekoan «ikus» zutela ematen ziren hainbat sarrera, definitu egin dira.

Aurreko guzti hori dela eta, oraingo honek 4.600 definizio gehiago ditu.

- «Diccionario de Autoridades» deritzan hiztegia, osorik, hasieratik amaierara, aztertu dugu, bertako datuen arabera adiera berriak sartuz zein egin beharreko zehaztasunak erantsiz. Euskaltzaindiaren «Orotarako Hiztegia» eta Ibon Sarasolaren *Hautalanetarako Euskal Hiztegia* ere kontutan izan ditugu (argitaratutako liburukiak).

HIZTEGIETAKO EDUKINAREN XEHETASUNAK

	SARRERAK		ADIBIDEAK		ADIERAK		SINONIMOAK		IKUS	
	EHO	EH	EHO	EH	EHO	EH	EHO	EH	EHO	EH
A	1.882	1.561	803	413	447	347	699	390	162	121
B	1.500	1.202	827	508	452	320	352	167	126	97
D	452	353	213	102	115	94	134	52	56	40
E	1.594	1.192	723	176	458	254	440	200	157	116
F	309	169	173	72	74	37	42	18	21	7
G	906	611	404	128	310	206	255	153	74	68
H	863	708	528	373	266	211	294	195	59	25
I	990	724	689	575	326	119	288	175	106	94
J	296	221	192	82	95	43	95	55	33	25
K	937	781	312	155	224	155	199	117	108	103
L	733	591	341	278	190	157	225	181	68	54
M	1.066	928	518	355	417	213	278	183	104	81
N	375	342	257	199	69	43	100	65	58	49
Ñ	32	0	27	0	17	0	17	0	1	0
O	581	510	317	210	125	82	185	144	44	40
P	804	619	456	327	193	137	203	141	90	83
R	8	0	0	0	0	0	0	0	1	0
S	639	623	450	403	166	147	209	194	62	59
T	880	740	597	474	236	166	327	243	74	59
U	449	396	353	285	113	81	174	159	31	23
X	79	65	43	24	25	23	32	22	3	2
Z	1.054	900	463	306	299	226	234	109	131	118
	16.427	13.236	8.686	5.445	4.527	3.061	4.779	2.960	1.568 -195	1.264 -195
EHO	+3.191		+3.241		+1.468		+1.819		+304	

EH: EUSKARAKO HIZTEGIA

EHO: EUSKARAKO HIZTEGIA. OINARRIZKOA

Aparteko arretaz aztertu eta osotu dugu adibideei dagokien alorra. Izan ere adibideak era askotakoak dira. Batzu definizioaren argigarri soilak besterik gabe. Hala ere, ahal dela, errimadun esaerak, esaera zaharrak, herri-kanten hitzak, koplak eta bertsoak ezartzera jo dugu. Hau da, euskal kulturaren mokau txikitxoak eskaini eta estetikaren printzak igorri nahi izan dizkiogu irakurleari. Adibidez:

- *Abarrausi*: «aharrusi luze, logura edo gose».
- *Alfer*: lan lasterra lan alferra.
- *Alferreko*: alferrekorik alferrekoena haizeari putz egitea.
- *Antzu*: «hauxe duk urte antzua! / gu baino hobeto egongo ahal duk zeruan dagoen atsua» (G. Anduaga).
- *Aparte*: «Euskal Herritik aparte / mila legua bitarte» (X. Amuriza).
- *Arre*: «Arre-arte astotxoa, arre-arte konkon».
- *Begira(tu)*: akerrari atzetik begiratzen badiozu, badakizu zer ikusiko duzun.
- *Burdina*: balizko oleak burdinarik ez.
- *Deabru*: deabruaren irina dena zahi.
- *Debotu*: «Aita San Antonio Urkiolakua, askoren bihotzeko santu debotua».
- *Eguzki*: eguzkia nora, zapiak hara.
- *Esne*: esnerik ez bada katiluan, zerbait txarra ikuiluan.
- *Euri*: euri urte, arto urte.
- *Ezerez*: ezerez! begirako ona duk, triparako ez.
- *Ezkongai*: ezkongaietan bero, kontuak gero.
- *Goruetan*: Maria gurea goruetan, behar ez den orduetan.

D

- Dagoeneko:** hitz egiten den unerako aditzak adierazten duena geriatua dela jakin erazten du: *dagoeneko helduko zen herri-za*. Jadanik, honez gero
- Dala:** sukaldean egon ohi den plater eta ontziak garbitu edo ikuzteko aska antzekoa: *oraingu dalak altzairu oxidagaitzekoak izan ohi dira gehienak*. Harria
- Dala:** oso lore politak baina usaingabeak dituen lorategietako landarea
- Dama:** emakume gaztea, birjina: *ai, ama! gazte nintzanean dama; orain zahartu naiz eta ez dama, ez ama*. Nekatila
- Damu:** zerbait gaizki egin ondoren sentitzen den garbaia: *damurik ez, barkamenik ere ez*. Damutasuna
- Damu(ta) da:** zerbait gaizki egin nahiz esatearen damua izan: *herriaren alde burruka egiteaz ez dago damutu beharrik*. Garbatu
- Damutasun:** *ikus damu*
- Danbada:** 1 bi gorputzen bat-bateko elkar jotze zaratzua. 2 suzko armaren ez-tanda
- Danbolin:** 1 danbor arrunta baino luze eta estuagoa izanik, baketa bakarrez jotzen dena. 2 gaztainak erretzeko zuko-troz heteriko burdinazko danborra
- Danbolinjole:** txistuari laguntzeko eskuineko eskuaz baketa hartuz danbolina jotzen duen musikaria. Danbolinterua
- Danbolinteru:** txistuari laguntzeko eskuineko eskuaz baketa hartuz danbolina jotzen duen musikaria: *antzinako erromerietan danbolinterua ezinbestekoa zen*. Danbolinjolea
- Danbor:** bi larru teinkok itxen duten zilindroz egina izanik, baketaz jotzen den kolpezko musikatresna
- Danborrada:** jaien hasieran jendeari dei egiteko danbor ugari batera bildurik egiten den kalez kaleko ibilaldi zaratzua erritmikoa: *Donostiako danborrada eguna, San Sebastian bezperakoa izaten da*
- Dantza:** ahotsez nahiz musikatresnen soinuz lagundurik egiten d mugimendu erritmiko eta artistikoa
- Dantza(ta) da:** gorputza doinu baten errimoz artistikoki mugitu: *aurreak erakusten du atzea nola dantzatu*
- Dantza egin:** *ikus dantza(ta)*
- Dantzaldi:** 1 une batetako dantzatze egintza mugatua. 2 dantzatzeko egiten den bilera edo jaia
- Dantzaleku:** dantzan egiteko lekua, estali gabea eskuarki: *erromeri egunerako dantzalekua herriko guztietan dago*
- Dantzari:** dantza-artearen egiten iharduten duen gizona edo nahiz emakumezkoa
- Dantzatoki:** dantzarako beren beregi prestatutako eraikin eta areto aproposa: *dantzatokiak ala zirri tokiak?*
- Daratsa:** gauza bati biraka egiten den mugimenduz zuloa egiteko tresna edo gailua. Broka, barautsa (ikus: 305. orr.)
- Darda:** *ikus gezi*
- Dardakada:** hotza, beldurra eta abarren eraginez gorputz osoan edo atal batetan nahi gabe errepikatzen den mugimendua: *sukarraren eraginez dardakadak daukat*
- Dardar:** 1 hotza, beldurra eta antzeko sentimenduen eraginez sortzen den higidura azkarra adierazteko onomatopeia

- *Mibi*: «orak non mina, han mihia».
- *Tanta*: tantaka-tantaka harria zulatu.
- *Zer(a)*: zereko zereetik zera zertu zidan...
- *Zoro*: zoroak hil duena, eroak ez du biztuko.
- etabar...

LABURTUZ: Hiztegi honek: 16.427 sarrera / 22.327 adiera / 19.581 definizio / 8.686 adibide / 6.152 sinonimo eta 468 «Ikus-ditu».

Eta guzti hori, euskara hutsean, aurrekoa baino erabilgarriago den liburu batetan eskainia.

Letra, txikiagoa bada ere, oso ulergarria da. Horri esker 616 orritan sartu izan dugu materiale guztia, liburuaren prezioa ere uste baino txikiagoa gertatu delarik.

NORTZUENTZAT:

- Ikasketak euskaraz egiten ari diren haurrentzat.
- Edozein metodo erabiliz euskara ikasten ari zareten guztiontzat (4. mailatik aurrera).
- Alfabetatzen ari diren guztientzat.
- Azkenik, euskara hutsean bizi nahi duen edonorentzat.

Patxi Uribarren